

# San Fidel ikastola

Gernika-Lumo



Hezkuntza  
eskaintza

# Hizkuntza Saila

## Euskera

Hizkuntza normalkuntza proiektuak eragin zuzena du ikastetxeko antolamendu eta ibilbide orokorrean; blaitu egiten du hango bizitza. Eragin horrek isla izan behar du eta du ikastetxeko dokumentu guztietan (IHP, ICP, AIA, ...). HNParen eraginez ikastetxeak hartu dituen erabakien berri emango dugu, zein prozesu jarraitu den erabaki horiek hartzeko eta dokumentu horietan zer/nola agertzen den.

Euskararen normalkuntzan euskaraz bizi ahal izateko baldintzak ziurtatzea litzateke helburu nagusia. Helburu hau lortu ahal izateko ezinbestekoa da ikastolan euskara erabiltzen jarraitzeko zenbait ekintza prestatzea, eta hori egiten dugu urtez urte.

Aipatu dugun azken ildo honi jarraituz, euskara biziberritzeko ahaleginetan gure ikastolako proiektuaren puntu nagusiak lantzen ditugu NOLEGA programa aurrera eramanez.

Ahozko Adierazpena:

- Eskola Antzerkigintza
- Eskola Bertso-lanketa
- Eskola Kantagintza
- Abelino Barriola Deklamazio Saria

Idatziko Adierazpena:

- Urruzuno Literatur Lehiaketa
- Udaletxeko Lan-koadernoak

Ikasgelaz kanpoko ekintzak (IKE)

## Ingeles

### Ingelesa Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan

Ingelesa irakasteko metodologia berriztatzailea da. "Erabilerarako egoerak" sortzen dira gela barruan, horrek baitira garrantzizkoak hizkuntza berri bat ikasteko prozesuan. Metodologia bizia, erakargarria eta umeengandik hurbil dagoena da. Ingeleserako umeek duten jarrera eta motibazio

positiboa izatea lortu nahi da. Beraz, ahozko adierazpena lantzen da, ipuin, antzerki eta abestiez baliatuz.

1992/93 ikasturtean Bizkaia mailan geu izan ginen lehenengo ikastola prozesu honetan murgildu zena. Badaramatzagu urte batzuk esperientziaren balorazio zabal bat egiteko beste eta esan beharra dago guztiz baliagarria eta positiboa dela.

- 2 – 5 urte: ELEANIZTASUN GOIZTIARRA
- LH 1. zikloan: LINGUA
- LH 2. zikloan: SOCRATES
- LH 3. zikloan: THE EXPLORERS

Lehen Hezkuntzako 1., 2. zikloan, 3. zikloan INGURUMENA arloa bi hizkuntzatan landuko da: euskaraz eta ingelesez. Ingelesez SCIENCES deituko da. Helburua da ingelesa erabiltzea tresna moduan beste eduki batzuk barneratzeko. Horretarako metodologia izango da aktiboa, erakargarria eta umeengandik hurbil dagoena.

Berrikuntza hau sendotzeko asmoz, 2010-11 ikasturtean hasita hiru urtetan MARKO HIRUELEDUNA deritzon proiektuan partaide izan gara Eusko Jaurlaritzak gure proiektua hautatu ondoren. Orain proiektu horri jarraipena emango diogu LH 4. , 5. eta 6. mailan.

## Ingelesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

### **1.zikloan: “SSLIC programaren hastapena” eta “SCIENCES”**

DBH 1. zikloan Gizarte arloko ordu bat ingelesez eskainiko da, gero DBH 2. zikloan nahi duen ikasleari errazteko Gizarte arlo guztia ingelesez lantzeko aukera.

DBH 1. zikloko Natur Zientziak arloa ere euskaraz eta ingelesez landuko dute ikasleek.

Modu honetan, ingelesa izango da hizkuntza bide eta ikasleari aukera emango dio hizkuntza hori jorratzeko beste testuinguru praktikoago eta funtzionalago batean.

### **2.zikloan: SSLIC**

Etapa honetan martxan jartzen den programarekin burutzen da Haur Hezkuntzan hasitakoa. Behin maila honetara iritsitakoan, ikasgai bat ingelesez ikasten du ikasleak: Gizarte arloa, hain zuzen ere. Ingelesa hizkuntza bide egiten dugu, horrela hobeto menperatzeko.

Zailtasunak ere ikusi ditugu. Horregaitik, oraingoz behintzat ez dugu derrigortzen inor gizarte ingelesez egiten. Ikasleek eta gurasoek erabakitzen dute euren aukera: gizarte ingelesez ala euskaraz.

Berrikuntza hau ezartzearen arrazoia ikastolako Ikusmiran onarritzen da. Ikastolan eleaniztasuna bultzatu nahi dugu, eta helburu hori lortzeko orain arte emandako pausuei ( ingelesa irakasten hasi 2 urtetik gora; DBH 2. zikloan Gizarte arloa ingelesez ikasteko eskaintza; Europear proiektuak; ingeles koloniak ....) beste batzuk gehitzea derrigorrezkoa dela ikusi izan dugu.

### **Europear proiektuak**

05-06 ikasturtean Europear Proiektuak martxan jarri genituen eta urtez urte antolatzen dira ikastolan.

Proiektu honen xedea beste ikastetxe batzuekin elkartrukea burutzea da( iazko ikasturtean Holandako ikasleekin egin dugu), horrela kultura aniztasuna sustatzeko.

Honelako proiektuak gauzatzerakoan hizkuntza gutxituen ezaguera eta eurenganako begirunea lortzea nahi dugu, eta era berean, gure kultura eta ohiturak atzerrikoei erakutsi.

Hau guztia, ingelesa komunikatzeko tresna erabiliz egiten da.

### **Ingeles ikastaroak udan eta ikasturtean zehar**

Eskola orduetatik kanpo, ingeles ikastaroak eskaintzen dira HH 2. ziklotik hasi eta DBH 4. mailara arteko ikasleei.

Ikastolan bertan ere aukera dago udan ingelesa lantzeko. Ingelesa, jolas, tailer, antzerki eta beste ekintza ludiko batzuen bitartez landuko da ikasleentzat erakargarria eta bizia gerta dadin. Helburua ingelesez bizitzea da.

Ingeles ikastaro hauek Mondragon Lingua enpresaren bitartez antolatzen ditugu eta eskaintza malgua eta zabala da.

## Orientazio Saila

Helburuak:

- Ikaskuntza arazoak aurreikusi eta antzemateari buruzko aholkularitza eman.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen ebaluazio psikopedagogikoak egin Berritzegunekoekin batera, tutoreei eta gurasoei aholkuak eman eta ikasleei, beharrezkoa denean, laguntza zuzena eman.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleekin lanean ari diren beste profesionalekin koordinazioa eratu.
- Orientabide personal, akademiko eta profesionalari dagokionez, ikastetxeko irakasleek ikasle guztiekin egiten duten tutoretza plana planifikatu eta koordinatu.
- Aniztasunaren aurrean aholkuak eman tutoreei, hezkuntzaren indartzea, curriculum egokitzea eta orientazioa bideratzeko ekintzak garatuz.
- Gurasoei aholkua eman beraien seme-alaben garapenean sor daitezkeen eskola, portaera edota sentibera arazoetat.

## Pastoral Saila

Pastoral taldekook bultzatzen ditugun ekintzen bitartez , kristau izateak eguneroko bizitzan daukan eragin zuzena deskubritzea dauka helburu nagusizat.

Justizia,solidaritatea eta bakearen baloreak gure ikastolan presente egitea da lortu nahi duguna.

Helburu nagusi horiek lortzen hasteko hurrengo ekintza hauek bultzatuko ditugu:

### Pastoral eta giza mailako ekintzak

San Fidel Ikastola promoverá un proyecto solidario con la ayuda de la ONG Solive (Solidaridad Vedruna); el proyecto que se seleccione en el presente curso tendrá una continuidad de cuatro-cinco cursos. Intentaremos que familias, alumnado y profesorado colaboren en este proyecto.

También será importante conseguir nuevas fuentes de financiación para el mismo.

- Gure inguruan ikusten ditugun beharrietara hurbildu egoerak ezagutzuz, horrela erantzunak ere bideratzen hasteko:
  - Bizkaiko Elikagaien Bankuarekin janari bilketetan parte hartzea.
  - Drogopenpeketasuna lantzea benetako esperientzietan oinarrituz.
  - Biltzen taldearen bitartez bertora etorri direnen egoera hurbiletik ezagutzea.
  
- Bidezko salerosketa zer den landu eta Urriko lehen Astelehenean Kidendako postuan txanda egitea.
- Zinea eta baloreak oinarritzat daukan Ikusiz Ikasi programan parte hartzea.
- Ikastolako ikasle nagusiekin Gernikan dauden egoera ezberdinetara hurbiltzea(hirugarren adina,gutxipen psikikoak, pobrezia).
- Kooperazio programa Berriz-en garatzea.
- Besteen alde lan egiten dutenen testigantza ikasleengana ekartea.

### Fede ospakizunak eta otoitzaldiak.

- Ikasturteko bi unetan (Gabonetan eta Aste Santuan) fede ospakizunak bultzatzea ikasleen artean.
- Santa Joakina egunean Eukaristía ospatzea Andra Mari parrokian.
- Parrokiko familia mezetan parte hartzen animatzea.

- Gabonetan eta Aste Santuan otoitzaldia eskaintzea irakasle eta gurasoentzat.

### Ekintza ezberdinak

- Gernika aldeko Únitate Pastoral bultzatzeko ahalegina egiten jarraitzea.
- Gernikako beste ikastetxeekin Iparralde-Hegoalde gaia jorratzea.
- Elizbarrutiko beste ikastetxeekin pastoral batzarretan parte hartzea eta proposamen berriak bilatzea.
- Pastoral ikuspegi gaurkotu eta askatzailea lantzeko formazio eskaintzak egitea.
- Agenda 21, Normalkuntza eta Pastoral taldearen artean ekintza zehatzak adostea gure ahaleginak batzeko asmoz.
- Gure Pastoral Planean agertzen diren ekintzak bultzatzea.

## Eskolako Agenda 21

1992an Rio de Janeiron egin zen Nazio Batuen Garapenari eta Ingurumenari buruzko Biltzarrean sortu zen Agenda 21. Agenda hori mundu mailako ekintza-plan bat zen, eta bere helburu nagusia garapen iraunkorra sustatzea zen. 1994an Danimarkako Aalborg hirian Europako hainbat hiritako ordezkariak bildu ziren Agenda 21 tokian tokiko ere garatzen joateko. Horrela sortu zen Tokiko Agenda 21. Proiektu horrek herriko edo eskualdeko biztanleriaren parte-hartzea sustatzen du.

Eskolako Agenda 21 programaren bidez, ikastetxeek Tokiko Agenda 21en parte har dezakete, eta, aldi berean, programa horrek garapen iraunkorarekin konprometitu dagoen hezkuntza-jarduera sustatzeko aukera ematen die ikastetxeei.

Nazioarteko orientabideei jarraituz, 2002an Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) zehaztu zen. Estrategia horretan ondoko helburu nagusiak finkatu ziren:

- Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak izan ditzagun bermatzea
- Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua
- Natura eta biodibertsitatea babestea: sustatu beharreko balioa.
- Lurraldeko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna
- Klima-aldaketaren eragina mugatzea

Ikastolak Agenda 21ean bi modutara parte hartzen du:

- Eskualdeko gainontzeko zentroekin batera jorratuko den gaia hitzartu eta gero, programa ikastolan jorratuz. Ikasturte honetan iazko gaiari jarraipena emango zaio, Kontsumo jasangarria : erosketa berdea. Ikastolako hiru esparruak biltzen dituen koordinazio taldeak (Normalkuntza, Agenda eta Pastoral) bultzatuta jarduera ezberdinen bitartez sentsibilizazioa, ezagutza eta informazioa eskuratzea bermatuko da.
- Eskola Jasangarriek osotzen duten sarean parte hartuz (IRAES). Honen bitartez aukera dago maila ezberdinetako CONFINTean parte hartzeko: erkidego, estatu, Europa zein mundu mailan. CONFINT (Nazioarteko Haur eta Gazteen Konferentzia) prozesu interaktiboa da eta aldi berean, pedagogia kanpaina ere, hezkuntza mundura dakarrelarik ingurumen politikaren dimentsioa. Prozesu eraikitzailea izanik, lagunartean bildu eta



proposatutako gaietara buruz hartutako erabakiak beste instantzietara eramateko ordezkariak hautatzen dituzte.

Agenda 21 ondo sustraituta dagoela adierazten digu, berriz ere, iazko ikasturtean birbalidatutako Eskola Iraunkorraren Ziurtagiriak.

Eskolako Agenda 21eko garapenean eta kontsumo arduratsuaren atalaren barruan, positiboki baloratu da jantokian bertoko produktua sartzea (sasoikoa eta ekologikoa)

Eskualde mailan aintzindariak izan gara eta ikasturte honetan ere, jantokiko menuan, elikagai ekologiko baten presentzia %40 baino gehiago izan dadila da gure helburua. Horrela eskualdeko nekazaritzaren sustapenean lagundu nahi dugu.